HERNANIKO UDAL MUGAPEAN BIDAIARIEN HIRI-GARRAIO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA ARAUTZEN DUEN BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1.- XEDEA

Plegu honen xedea da baldintza teknikoak ezartzea, Hernaniko udalerriaren barruan bidaiarien hiri-garraio publikoko ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA esleitzeko deialdia arautzeko.

2.- ZERBITZUA ABIAN JARTZEA ETA ZERBITZUAREN IRAUPENA

Zerbitzu hau osorik eta beharrezko baliabide guztiekin hasiko da funtzionatzen kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik hasita.

Agiri honetan jasotako lanak egiteko erabiliko den ibilgailua esleipendunak jarriko du 6.1. atalean zehazturiko ezaugarriekin. Ibilgailu honek berria izan beharko du, zehazki urtebete baina gutxiagoko antzinatasuna duena.

Ibilgailu berria zerbitzura atxikitzeko gehienezko epea urtebetekoa izango da, kontratua sinatzen den egunetik. Urtebeteko epe horretan, esleipendunak aukera du zerbitzura atxikitzeko udalaren jabetzako autobusa, gaur egungo garraio zerbitzua emateko baliatzen dena.

Kontratuaren epea 10 urtekoa izango da. Epea bete ezean, indarrean dagoen araudiko zigorrak ezarriko dira.

3.- GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREKIKO HARREMANA

Enpresa kontratistak bere gain hartu eta bete egingo ditu egungo kontzesiodunak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzarekin hartutako konpromisoak. Nolanahi ere, enpresa kontratistak bere gain hartuko ditu Hernaniko Udalak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan duen partaidetzatik etorritako konpromisoak garraio zerbitzuaren plangintzari eta prestazioari dagokienean, eta baita tarifen integrazioan ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoko garraio publiko kolektiboaren tarifen integrazio sistema ezartzeko lankidetza Hitzarmenean zehaztutako baldintzetan. Udalbatzak 2013ko otsailaren 26an egindako osoko bilkuran onartu zen hitzarmen hori. III. Eranskinean (BTP) “Tarifen Integrazio Sistema” azaltzen dira erabiltzailearen tarifa desberdinak, eta baita kolektiboen araberako deskontuak ere.

4.- LIZITAZIO AURREKONTUA.

Hernaniko Udalak enpresa esleipendunari urtean ordainduko dion kontraprestazio ekonomikoak ez du gainditukо 149.210 euro + BEZ (%10), urteko. Proposamenak aurkezten dituztenean, enpresa lizitatzaileek kontraprestazio hori baino eskaintza baxuagoak egin ahal izango dituzte.

Zerbitzu honen fakturazio sistema ondorengoa izango da: Hernaniko Udalari fakturatuko zaio zerbitzuaren hileko kostuaren eta erabiltzaileengandik zuzenean lortutako diru-sarreren arteko aldea. Hileko kostua esleipendunak eskainitako kontraprestazio ekonomikoaren baitan kalkulatuko da.

Fakturari gehitu behar zaio zerrenda xehatu bat, non enpresak erabiltzailearengandik egunez egun zuzenean eskuratutako bidaia txartelen diru-sarrerak jasoko baitira.

Honako hauek izango dira zerbitzuen erabiltzaileek 2021. urtean ordaindu beharreko tarifak eta ezaugarriak:

- Indarrean dagoen hiri barruko tarifaren arabera kobratzea baimentzen da.
- Tarifa berezituak kobratuko dira: noizbehinkako txartela, MUGI edo LURRALDEBUS txartela eta gaueko txartela. 2020an ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA kontuan hartuz, Baldintza Teknikoen Agiriaren III eranskinean adierazitako moduan.
- Ondorio hauetarako, erabiltzailetzat hartuko da dagokion tarifa ordaindu eta kontratu honen pean zerbitzua erabiltzen duena.
- MUGI edo LURRALDEBUS txartela ez duten erabiltzaileek eskudirutan ordainduko dute noizbehinkako txartelaren eta gaueko txartelaren prezioa, eta enpresa kontratistak bilduko du.
- MUGI edo LURRALDEBUS txartela duten erabiltzaileak txartela erabiliz ordainduko dute bidaia, eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak bilduko du dirua.

Erabiltzaileek ordaintzen dituzten tarifak behar bezala justifikatze aldera, zerbitzuaren esleipendunak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du hil bakoitzeko lehen bost egunetan:

- Igaro berri den hilean eman diren txartel zerrenda, horien guztizko zenbatekoa adierazita, Excel taula batean edo antzekoan.

Informazio hau esleipendunak edo udalak berak Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzatik lortu dezake, beraz unea iristean udalak eskaturiko moduan egingo da.

Betebehar hau betetzen ez bada ordaindu beharreko kopuruen atxikipena egingo da dokumentuak aurkeztu bitartean.

5.- LANGILEAK

5.1.- Orotarikoak

Nahikoa langile egon behar du eta behar bezala gaituta egon behar dute (mikrobusa gidatzeko baimena eta bidaiariak garraiatzeko gidari profesionalaren baimena), zerbitzua ondo eman ahal izateko. Beharrezkoa izanez gero, prestakuntza jasoko dute zerbitzuko berezko jarduerei buruz, hala nola prebentzioari, osasunari, laneko osasunari, irisgarritasunari eta abarri buruz.

Langileek, eguneroko lanean, ardura eta begirune osoz jardungo dute.

Gidariek ibilgailua gidatzerakoan zehazki bete beharko dituzte, Bide Segurtasunari buruzko Legea, lege horren Araudia eta Zirkulazio Kodea edo horiek ordezkatzen dituzten arauak.

Gidariak bete egin beharko ditu administrazioaren baldintza-orrietan zehazten diren hizkuntza-

eskakizunak. Gainera, enpresaren arropa identifikagarria jantzi beharko du. Arropa hori behar denean berrituko da, uneoro langileen itxura egokia izan dadin.

Balio berezia duten eta autobus zein geltokietan agertzen diren gauzak udaletxean entregatu behar dira, jabeek berreskuratu ahal ditzaten.

5.2.- Langileak

Aplikagarri den lan hitzarmenaren arabera, enpresa esleipendunak subrogatu egin beharko du aurreko enpresak zenbait langileren lan kontratuekiko zeukan jarreran.

Kontratistak ordezkari bat izendatu beharko du Udalarekin harremana izango duena. Ordezkari horrek prestaziorako beharrezkoak diren erabakiak hartzeko ahalmena izan behar du. Ordezkariak zerbitzuari loturiko gaiak tratatzeko gonbidatzen duten bileretara joan behar du edo, ezin badu, antzeko erabaki-ahalmena duen langile bat eskuordetuko du.

Nolanahi ere, behar adina langile izan behar dira zerbitzua eskaintzeko eta, zerbitzuaren ezaugarriak kontuan hartuta, ordezkapenak berehala bete behar dira.

Esleipendunak gidari titularrak izango ditu zerbitzuan eta, edozein ordezkapen egiteko, langile gaituak erabiliko dira; horiek nor diren aldez aurretik jakinarazi behar zaio Udalari.

5.3.- Komunikazioak

Esleipendunak komunikazio-sistema bat izan beharko du, lanaldian zehar alderdi tekniko zein administratiboak ebazteko ahalmena duen enpresaren ordezkari batekin harremanetan jarri ahal izateko.

Gainera, esleipendunak helbide elektroniko bat eskaini eta irekita mantendu behar du, Udalarekiko komunikazioetarako, eta enpresa esleipendunak gutxienez egunean behin irakurri beharko du jasotakoa.

5.4.- Ordutegiak

Langileen ordutegia zerbitzu-beharretara egokituko da, eta sektoreko lan-hitzarmenaren (Gipuzkoako Probintziako bidaiarien errepide bidezko garraioaren Hitzarmena) araberakoa izango da.

6.- IBILGAILUA

Agiri honetan jasotako lanak egiteko erabiliko den ibilgailua esleipendunak jarriko du 6.1. atalean zehazturiko ezaugarriekin. Ibilgailu honek berria izan beharko du, zehazki urtebete baina gutxiagoko antzinatasuna duena.

Ibilgailu berria zerbitzura atxikitzeko gehienezko epea urtebetekoa izango da, kontratua sinatzen den egunetik. Urtebeteko epe horretan, esleipendunak aukera du zerbitzura atxikitzeko udalaren jabetzako autobusa, gaur egungo garraio zerbitzua emateko baliatzen dena.

Udalaren jabetzako autobusak zerbitzua ematen jarraitzeko behar dituen egokitzapenak lizitatzailearen kontura izango dira. Besteak beste, Derrigorrezko seguruaren kontratazioa, autobusa zerbitzuari atxikitzeko beharrezko tramite eta inspekzio tekniko guztiak, ibilgailuaren mantentze-lanak eta kustodia, esleipendunaren kontura izango dira kontratua indarrean hasten den unetik.

Behin lehenengo urtea igaro ondoren, udalaren jabetzako autobusa, erreserbako ibilgailu bezala erabili ahalko da, kontratuak irauten duen hurrengo urteetan. Soilik, zerbitzuari atxikitutako autobus nagusia konponketa edota errebisiotan dagoen kasuetan erabiltzeko. Hala nola, 11. atalean azalduriko aparteko zerbitzuak emateko.

Kontratu honen xede den zerbitzua emateko jarritako ibilgailua kontratuaren helburuetarako baino ez da erabiliko, Udalak eskatutako aparteko zerbitzuak salbu.

6.1. Zerbitzuetara atxikitako autobusen deskribapen teknikoak

Ibilgailuak garraio publikorako homologatuta eta baimenduta egon behar du, eta honako ezaugarri hauek izan behar ditu, gutxienez:

- Gutxienez, 40 bidaiari eramateko ahalmena izango du.
- Elizatxoko tuneletik igarotzeko neurriak bete beharko ditu: 10 metro arteko luzera, 3.5 metroko zabalera baina gutxiagokoa eta 3.20 metroko altuera baina gutxiagokoa.
- Hiri-autobusa, mota baxukoa.
- Aire girotua / berogailua.
- Irisgarritasun-baldintzak bermatzeko bete beharko du: Irisgarritasuna Sustatzeko Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 4ko 20/1997 legea garatzen duen EHAAko 126/2001 Dekretuaren 4. artikuluak jasotzen duena.
- “Txartel bakarra” zerbitzua emateko beharrezkoa den ekipamendua izango du (txartelak emateko ukipenik gabeko txip teknologia euskarritzat duten garraio tituluak indargabetzeko edo balioztatzeko sistemarekin osatua, beharrezkoa duen euskarri informatiko eta konpentsazio eta ticketing software eguneratua, komunikazio lineak etab). Horretarako, gaur egungo Hiribus zerbitzuak erabiltzen duen ekipamendua erabili ahal izango da. Esleipendunaren kontura izango dira, ekipamendu honen mantentze-lanak, eta ibilgailu berrian instalatzeko egin beharreko egokitzapenak. Ekipamendu berria erosi beharko balitz, hau Udalaren kontura izango da.
- Autobusak beharrezko tresnak izango ditu, udalak bidaiarien zirkulazioaren eta horrek eragindako diru-sarreren berri dituela bermatzeko.
- Udaletxeak zehazturiko ibilbideak eta ordutegia bermatzeko beharrezko teknologia eta ezaugarriak (autobusaren potentzia etab.) eduki beharko ditu. Honetarako, kontuan eduki beharko da, aste egunetan 10 ordu inguruko funtzionamendua izango duela eta 100 kilometro inguruko ibilbidea. Ibilbidearen %75 inguru zona lauak (malda <=%6) dira eta %6 baino handiagoa den maldan gainontzeko %25a (gehieneko malda %12 ingurukoa izanik).
- Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa legeari jarraiki (4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa), bidaiariak errepidez eramateko zerbitzu publikoa ordezko erregaiak erabiltzen dituzten ibilgailuen bidez eskaini behar da. Ordezko

erregaiak kontsumitzen dituen ibilgailu gisa ulertzen da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1161 (EB) Zuzentarauan adierazitakoarekin bat datorren ibilgailua; alegia, garraioan energia-iturri gisa erabiltzen diren erregai fosil klasikoak, parte batean gutxienez, ordezten dituzten erregai edo energia-iturriak erabiltzen dituen ibilgailua. Ordezko erregai bezala Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko urriaren 28ko 2014/94/UE Zuzentarauko bigarren artikuluan adierazten diren erregaiak soilik hartuko dira kontuan: elektrizitatea, hidrogenoa, bioerregaiak, erregai sintetiko eta parafinikoak, gas naturala (GNC edo GNL) edo GLP gasa. Ordezko erregaiak kontsumitzen dituzte ibilgailuak dira, besteak beste: elektriko purua (100% elektrikoa), hibrido elektriko entxufagarria (PHEV); edo konprimitutako edo likidotutako gas naturala (GNK eta GNL, hurrenez hurren) darabilkiten mono- edo bi-fuelak. Hibrido elektriko ez-entxufagarria (HEV) ez da ordezko erregaiak erabiltzen dituen ibilgailua.

Zerbitzua eman ohi duen ibilgailuak Udalak ezarritako kolore eta ezaugarriekin egon behar du margotuta, eta Udalaren bereizgarria izango du, honek kontratuaren iraupen osoan egoera onean egon behar du. Zerbitzuaren enpresa esleipendunaren eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren ezaugarriak izan ezik, eta Udalak berak publizitate errotuluen kudeaketarik kalterik egin gabe, ibilgailuak ez du izango beste bereizgarririk.

6.2.- Ibilgailuak ordezkatzea

Matxurarik gertatuz gero edo ibilgailuak zerbitzu ematea eragozten duen bestelako gertakaririk izanez gero, 24 orduko gehieneko epean jakinarazi behar da, eta 6.1. puntuko ezaugarriak betetzen dituen beste ibilgailu batekin ordezkatuko da ahal bada. Zerbitzua ezingo da inolaz ere eten edo gelditu. Udalaren propietatekoa den ibilgailua ere erabili ahal izango da kasu zehatz hauetarako.

Kontratistak bere kontura eta inolako konpentsazio ekonomikorik gabe ordezkatu behar du kontratan jasotako edozein material, baja ematen bazaie kontsumo, lapurreta, hondatze edo bestelako edozein arrazoirengatik.

6.3.- Ibilgailuaren mantentze-lanak

Kontratistaren ardura izango da beharrezko mantentze-lanak egitea, ekipamendu eta ibilgailuak egoera orokor onean egon daitezen, bai mekanikari eta bai higieneari (barruan eta kanpoan) dagokienez.

Egunero garbituko da, zerbitzua hasi baino lehen.

Baldintza teknikoei dagokionez, indarrean dagoen ibilgailuen araudiak ezarritakoa beteko du eta ibilgailuen azterketa teknikoa (IAT) egunean edukiko du.

Esleipendunak prebentziozko mantentze-plan bat eduki beharko du kontratuaren xede diren material guztietarako, berrikuspenei, kanpoko zein barruko garbiketei eta aldian behin egin beharreko gainerako lanei dagokienez.

Mantentze-lanak indarrean dauden arauekin bat egingo dira.

7.- INSTALAZIOAK

Kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, eta eman beharreko zerbitzuak ondo funtzionatuko duela bermatzeko, enpresa esleipendunak behar besteko instalazioak izan beharko ditu kontratu honen betebeharrak betetzeko bulego, aldagela, biltegi eta zerbitzuko ibilgailuen garaje aldetik. Lokalaren kokapena eta ezaugarri nagusiak adierazi beharko dira eskaintzan.

Kontratistaren kontura izango dira lokala egokitzeko gastu guztiak eta baita funtzionamendukoak (ura, argia, telefonoa, gasa...), tasak, aseguruak, lizentziak eta abar ere.

Lokalek laneko segurtasunari eta higieneari buruz indarrean dagoen araudia bete beharko dute, eta baita isurketei, ibilgailuen garbiketari, jarduera gogaikarri eta osasungaitzei eta abarrei buruzko araudiak ere.

8.- KONTROL-SISTEMAK

Enpresa esleipenduna izango da zerbitzuaren kalitatearen arduradun zuzena, eta etengabe kontrolatuko du egokitzat jotzen duen alderdi oro; hala, eskaintzan aurkeztu behar du lanen kalitatea kontrolatzeko eta bermatzeko zerbitzu-kontrolerako plana edo sistema, eta proposatutako neurriak zehaztuko ditu, xehetasun handienaz deskribatuz jarduteko modua, ikuskapenen eta neurrien emaitzak erregistratzeko metodoa, neurri zuzentzaileak (hala badagokio) eta eskuragarri izango dituen baliabide material eta giza baliabide guztiak.

Esleipendunak etengabe zainduko du zerbitzuaren kalitatea: puntualtasuna, ibilgailuen kanpoko eta barneko garbiketa, erabiltzaileekiko adeitasuna, eskaera edo kexen inguruko erantzun-azkartasuna, geltokietako informazioa, segurtasuna, erosotasuna eta abar.

Gainera, Udalak etengabe ikuskatuko eta zainduko ditu kontratatutako zerbitzuak, zerbitzu-prestazioak eskakizun operatiboak eta zerbitzuen kalitateko helburuak betetzen dituela kontrolatzeko eta, oro har, egiaztatzeko eta bermatzeko.

Udalak ibilgailuen baldintza teknikoak eta zerbitzuaren baldintzak (ibilbidea, ordutegiak, tarifak eta abar) betetzen direla ikuskatu ahalko du.

Udalak dagozkion kalitate-inkestak egiteko ahalmena izango du.

Esleipendunak beti edukiko ditu erabiltzaileentzako eskuragarri erreklamazio orriak. Mikrobusean, ongi ikusten den leku batean, iragarki bat jarri beharko da orri hauek badaudela adieraziz eta esleipendunak emango dizkio inolako erreklamaziorik egin nahi duen edozein erabiltzaileei. Esleipendunak egindako erreklamazio hori, bere informe eta alegazioekin, Udalera bidali beharko du.

Udalak, egokitzat jotzen duenean, saldutako txartelen kontrola egingo du; horretarako, esleipendunak beharrezko laguntasuna eta informazio guztia eskainiko dizkio.

Halaber, esleipendunak kontrata honetako zerbitzuarekin zerikusia duten behar beste txosten prestatu beharko ditu, Udalak hala eskatzen badio.

9.- LANEKO PARTEAK

Esleipendunak, behin zerbitzua martxan jarrita, aldian behin honako lan-parte hauek aurkeztu behar ditu (euskarri informatikoan):

a.- Berehalako partea (24 orduko epean).

- Intzidentzien berri ematea, zerbitzua aldatzen derrigortzen duten egoerei buruz, ordutegiei, ibilgailu kopuruari, lineei, eta abarri dagokienez.

b.- Enpresa esleipendunak udalaren eskura jarri beharko du langileak egiaztatzeko eta lan bakoitzaren arduradunak zein diren identifikatzeko beharrezko informazio guztia (udalak eskatutakoan).

- Langileria: gidari bakoitzaren lan-egoeraren laburpena (istripuengatiko bajak, gaixotasunak, absentismoa, ordezkapenak, egutegia eta lan-grafikoak).

c.- Enpresa esleipendunak udalaren eskura jarri beharko du ibilgailuaren egoerari eta emandako zerbitzuari buruzko informazio guztia (udalak eskatutakoan).

- Ibilgailuak: mantentze-lanak, garbiketak, ibilgailuetan egindako konponketak eta hautemandako matxura eta gertakariak.
- Ohiko txartelen kontrola (paperean).
- Horretarako baimenik izanez gero, udal-ibilgailuak Udalaz kanpoko beste zerbitzu batzuetarako erabiltzea, zerbitzuak, kilometroak eta abar zehazturik.

d.- Erabilerari buruzko urteko txostena

I. Gertakari garrantzitsuenak, taldeen erabilera, kontrol – sistemak, tarifak eta abar. Udaletxeak aukera izango du interesgarri iruditzen zaion zerbitzuaren inguruko beste edozein informazio eskatzeko.

e.- Ingurumen irizpideei loturiko datuak eta Ingurumen Kudeaketako Plana (urtean behin). Plan honen nondik norakoak ondorengo puntuan azaltzen dira.

9.1.- Zerbitzua emateko kontuan hartu beharreko ingurumen-irizpideak

Enpresa lizitatzaileak Ingurumen Kudeaketako Plan bat zehaztu beharko du eta, hor, garraio publikoko zerbitzuak eragiten dituen inpaktuak murrizteko ezarriko dituen neurri eta prozedurak adieraziko ditu enpresak.

Plan horretan, honako elementu hauek jaso beharko dira:

- Ibilgailuen mantentze-lanetan sortzen diren hondakinen kudeaketa egokia, indarrean dauden legeetan ezarritakoarekin bat.
- Erregaia eraginkortasunez erabiltzea, eta atmosferarako emisioak minimizatzea.
- Adjudikaziodunak zarata emisioak zainduko ditu, neurri handian ibilgailuak erabiltzeko eraren eta mantentze egoeraren araberakoak baitira.

Ingurumen Kudeaketako Plana egiaztatu egin ahalko da EMAS, ISO 14.001, Ekoscan edo beste ingurumen-ziurtapen baliokideren bat aurkeztuta (horren helmenean kontratuaren xede den zerbitzua jasota) edota zerbitzua ingurumena errespetatuz ematen dela bermatzen duten prozedurak, lan- jarraibideak edo bestelako agiriak aurkeztuta.

Hori guztia egiaztatzeko dokumentazio gisa, enpresa lizitatzaileek garraio publikoko zerbitzuaren ingurumen-alderdiak identifikatu behar dituzte, baita zerbitzuaren inpaktuak minimizatzeko dituen prozedurak ere, ingurumen-ziurtapenarekin bat, halakorik izanez gero.

Ingurumen Kudeaketako Plana ez betetzea arau-hauste larritzat joko da.

Esleituriko enpresak txosten bat aurkeztu beharko du urtero, honako informazio honekin:

- Zerbitzuaren erabiltzaile kopurua.
- Kontsumitutako energia-iturri zein erregai mota bakoitzaren zenbatekoa
- Egindako kilometroak.
- Ibilgailuaren mantentze-lanak barruan eginez gero: Sortutako hondakin-frakzio bakoitzaren kantitatea (kg) eta sortutako hondakin-frakzio bakoitzaren azken jomuga.
- Ibilgailuaren mantentze-lanak konponketa-tailerrean eginez gero, sortutako hondakinak behar bezala kudeatzen direla egiaztatzen duen agiria aurkeztu behar da.
- IAT txostenaren kopia, hala dagokionean.

Balioetsi egingo da lan-operatiboari buruzko prozesu sistematizatuak daudela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea, hondakinak ondo kudeatzen direla eta erregaia eraginkortasunez erabiltzen dela bermatzeko.

10.- LINEA

10.1.- Ibilbideak

Lau ibilbide egongo dira, bakoitzaren ezaugarriak honakoak direlarik.

EZAUGARRIAK	Luzera (km)	Iraupena	Ibilbidea (Geralekuak)
ESKOLA ZERBITZUA	21,393	1:24	Zikuñaga Goia - …. - Elkano
HIRIBUS 1	5,479	0:23	Elkano - Zinkoenea Floridaruntz - Florida 23 - Florida 69 (Etxehaundi) - Florida 100 - Etxeberriko Frontoia - Cumbre - Bestizan - Bolatokia - Florida 69 (Etxehaundi) - Sagastialde - Antziola Auzoa - Antziola 68 - Antziola 17 - Antziola 2 - Atsegindegi - Txantxilla - Lizeaga / Victor Hugo - Institutua - Txantxilla 2 - Elkano
HIRIBUS 2	5,602	0:17	Elkano - Zinkoenea Kioskoa - Karabel - Zikuñaga Goia - Zikuñaga Auzoa - Akarregi - Zinkoenea Floridaruntz - Atsegindegi (Urbieta Kalea) - Txantxilla - Larramendi - Elizatxo/Portu - Elizatxo Auzoa - Larramendi - Elkano
SAGARDOTEGI LINEA	8,442	0:27	Zikoenea Floridaruntz – Itxas Buru – Olaizola – Otsua Enea – Altzueta – Iparragirre – Elorrabi – Goiko Lastola – Zinkoenea Kioskoa

Ibilbideen planoa I eranskinean dago.

10.2.- Ordutegia eta maiztasuna

EZAUGARRIAK	Ordutegia	maiztasuna	Ibilbidea (Geralekuak)
ESKOLA ZERBITZUA	7:38 – 9:02	Egunean behin	Zikuñaga Goia - …. - Elkano
HIRIBUS 1	XX:30	Puntako orduetan orduero	Elkano - Zinkoenea Floridaruntz - Florida 23 - Florida 69 (Etxehaundi) - Florida 100 - Etxeberriko Frontoia - Cumbre - Bestizan - Bolatokia - Florida 69 (Etxehaundi) - Sagastialde - Antziola Auzoa - Antziola 68 - Antziola 17 - Antziola 2 - Atsegindegi - Txantxilla - Lizeaga / Victor Hugo - Institutua - Txantxilla 2 - Elkano
HIRIBUS 2	XX:00	Puntako orduetan orduero	Elkano - Zinkoenea Kioskoa - Karabel - Zikuñaga Goia - Zikuñaga Auzoa - Akarregi - Zinkoenea Floridaruntz - Atsegindegi (Urbieta Kalea) - Txantxilla - Larramendi - Elizatxo/Portu - Elizatxo Auzoa - Larramendi - Elkano
SAGARDOTEGI LINEA			Zikoenea Floridaruntz – Itxas Buru – Olaizola – Otsua Enea – Altzueta – Iparragirre – Elorrabi – Goiko Lastola – Zinkoenea Kioskoa

Ordutegia II eranskinean dago, egun mota bakoitzean esleipendun enpresak bermatu beharko duen zerbitzua.

Sagardotegietako lineari dagokionez, urtarrila amaieran hasi eta 15 aste bukaeretan emango da zerbitzua, ostiral gauetan, larunbat eguerdian eta larunbat gauetan. Otordu bakoitzerako 4 espedizio egingo dira, bi zerbitzu sagardotegietara joateko eta beste bi bertatik itzultzeko, ordutegiak hauek direlarik:

1) Eguerdietan:

    a. 13:30 eta 14:00 Zinkoenea – Sagardotegiak
    b. 18:00 eta 18:30 Sagardotegiak – Zinkoenea

2) Gauetan:

    a. 20:30 eta 21:00 Zinkoenea – Sagardotegiak
    b. 23:30 eta 00:00 Sagardotegiak - Zinkoenea

Hobekuntzen atalean finkatzen den moduan, enpresa lizitatzaileek aukera izango dute Sagardotegietako zerbitzu hau osatzeko, erabiltzaileei zerbitzu egokia emateko hainbat espedizio gehituz.

11.- APARTEKO ZERBITZUAK

Aparteko zerbitzuen kontsiderazioa izango dute plegu honetako xede den kontratuan zehaztuak ez diren guztiek; eta baita gestorearen eskaintzak zehaztuak ez direnak ere. Esleipendunak obligazioa izango du urtean dohainik 20 orduko aparteko zerbitzu hauek emateko. 21. ordutik aurrerako zerbitzuen prezioa Udalak eta esleipendunak ados jarrita erabakiko dute.

Aparteko zerbitzuak ohiko zerbitzuarekin kointziditzen dutenean beste autobus bat jarri beharko da aparteko zerbitzu hauek egiteko. Ahal bada, beste autobus honek ere 6.1. puntuko ezaugarriak beteko ditu. Udalaren propietatekoa den ibilgailua ere erabili ahal izango da kasu konkretu hauetarako.

Ohiko zerbitzua ezingo da inolaz ere eten edo gelditu aparteko zerbitzuengatik.

12.- BIDAIARIEN GARRAIO-ERREGIMENA ARAUTZEA

Bidaiarien garraio-erregimenari dagokionez, esleipendunak GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN BARRUAN DAUDEN GIPUZKOAKO ADMINISTRAZIOEN EREMUAN BIDAIARIEN ERREPIDE BIDEZKO GARRAIO-ZERBITZU PUBLIKO ERREGULARRAK HARMONIZATZEKO ERREGELAMENDUAn ezarritako baldintzen arabera eskaini beharko du zerbitzua. Hau Gipuzkoako Garraiorako Lurralde Aginteak ezartzen du.

HERNANIN, 2021eko otsailaren 8an

Partaidetza eta Agenda 21eko teknikaria

ERANSKINA: IBILBIDEAK

1. ESKOLA ZERBITZUA

1A IBILBIDEA		
1	ZIKUÑAGA GOIA	7:38
2	ZIKUÑAGA AUZOA	7:38
3	KARABEL	7:40
4	AKERREGI	7:41
5	ZINKOENEA FLORIDARUNTZ	7:42
6	FLORIDA 23	7:43
7	FLORIDA 69 (ETXEHAUNDI 1)	7:44
8	FLORIDA 100	7:45
9	ETXEBERRIKO FRONTOIA	7:45
10	CUMBRE	7:45
11	BESTIZAN	7:45
12	BOLATOKIA	7:45
13	FLORIDA 69 (ETXEHAUNDI 2)	7:46
14	SAGASTIALDE BERRI	7:48
15	ANTZIOLA AUZOA	7:48
16	MARIELUTS	7:53
17	OSASUN ZENTROA	7:55
18	TXANTXILLA / AXALA	7:55
19	INSTITUTUA	8:00
1B IBILBIDEA		
1	INSTITUTUA	8:00
2	ZIKUÑAGA GOIA	8:15
3	ZIKUÑAGA AUZOA	8:15
4	AKERREGI	8:16
5	ZINKOENEA FLORIDARUNTZ	8:16
6	FLORIDA 23	8:17
7	FLORIDA 69 (ETXEHAUNDI 1)	8:19
8	FLORIDA 100	8:20
9	ETXEBERRIKO FRONTOIA	8:20
10	CUMBRE	8:20
1	BESTIZAN	8:20
1		
12	BOLATOKIA	8:20
13	FLORIDA 69 (ETXEHAUNDI 2)	8:21
14	SAGASTIALDE BERRI	8:25
15	ANTZIOLA AUZOA	8:25
16	ANTZIOLA 17	8:27
17	ANTZIOLA 2	8:27
18	ATSEGINDEGI / URBIETA KALEA	8:28
19	TXANTXILLA / AXALA	8:29
20	ELKANO	8:30
1C IBILBIDEA		
1	ELKANO	8:30
2	ZINKOENEA FLORIDARUNTZ	8:31
3	FLORIDA 23	8:32
4	FLORIDA 69 (ETXEHAUNDI 1)	8:34
5	FLORIDA 100	8:35
6	ETXEBERRIKO FRONTOIA	8:35
7	CUMBRE	8:35
8	BESTIZAN	8:35
9	BOLATOKIA	8:35
10	FLORIDA 69 (ETXEHAUNDI 2)	8:36
11	SAGASTIALDE BERRI	8:38
12	ANTZIOLA AUZOA	8:38
13	ANTZIOLA 17	8:40
14	ANTZIOLA 2	8:40
15	ZINKOENEA KIOSKOA	8:41
16	ZIKUÑAGA BIRIBILGUNEA	8:44
1	KARABEL	8:46

7		
18	PORTU	8:48
1D IBILBIDEA		
1	PORTU	8:50
2	AKARREGI	8:55
3	ZINKOENEA FLORIDARUNTZ	8:57
4	ATSEGINDEGI / URBIETA KALEA	9:00
5	TXANTXILLA / AXALA	9:01
6	ELKANO	9:02


1A IBILBIDEA



1B IBILBIDEA


9
10
11
8
12
13
7
15
14
16
6
17
5
18
20
4
19
3
2
1

1C IBILBIDEA




1D IBILBIDEA



2. HIRIBUS 1

2 IBILBIDEA		
1	ELKANO	X:30
2	ZINKOENEA FLORIDARUNTZ	X:31
3	FLORIDA 23	X:32
4	FLORIDA 69 (ETXEHAUNDI 1)	X:34
5	FLORIDA 100	X:35
6	ETXEBERRIKO FRONTOIA	X:35
7	CUMBRE	X:35
8	BESTIZAN	X:35
9	BOLATOKIA	X:35
10	FLORIDA 69 (ETXEHAUNDI 2)	X:36
11	SAGASTIALDE	X:38
12	ANTZIOLA AUZOA	X:39
13	ANTZIOLA 68	X:40
14	ANTZIOLA 17	X:42
15	ANTZIOLA 2	X:42
16	ATSEGINDEGI / URBIETA KALEA	X:45
17	TXANTXILLA / AXALA	X:46
18	LIZEAGA - VICTOR HUGO	X:48
19	INSTITUTUA	X:50
20	TXANTXILLA 2 / AXALA 2	X:52
21	ELKANO	X:53


2 IBILBIDEA



3. HIRIBUS 2


3 IBILBIDEA		
1	ELKANO	X:00
2	ZINKOENEA KIOSKOA	X:01
3	KARABEL	X:02
4	ZIKUÑAGA GOIA	X:06
5	ZIKUÑAGA AUZOA	X:06
6	AKARREGI	X:09
7	ZINKOENEA FLORIDARUNTZ	X:10
8	ATSEGINDEGI / URBIETA KALEA	X:05
9	TXANTXILLA / AXALA	X:05
10	LARRAMENDI	X:12
11	ELIZATXO AUZOA	X:13
12	ELIZATXO - PORTU	X:14
13	LARRAMENDI	X:15
14	ELKANO	X:17

3 IBILBIDEA



4. SAGARDOTEGI LINEA

4 IBILBIDEA		
1	ZINKOENEA KIOSKOA	0 min
2	ITXAS BURU SAGARDOTEGIA	5 min
3	OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA	8 min
4	OLAIZOLA SAGARDOTEGIA	8 min
5	ALTZUETA SAGARDOTEGIA	12 min
6	IPARRAGIRRE SAGARDOTEGIA	14 min
7	ELORRABI SAGARDOTEGIA	16 min
8	GOIKO LASTOLA SAGARDOTEGIA	20 min
9	ZINKOENEA FLORIDARUNTZ	27 min


9
1
2
3
4
5
6
7
8

II.ERANSKINA: ORDUTEGIA ETA MAIZTASUNA

ESKOLA EGUNA			Ordutegia		Luzera
Irailetik ekainera	5	ESKOLA ZERBITZUA	7:38	9:02	21,393
Astelehenetik - ostiralera	1	HIRIBUS 1	9:30	9:53	5,479
	1	HIRIBUS 2	10:00	10:17	5,602
	1	HIRIBUS 1	10:30	10:53	5,479
	1	HIRIBUS 1	11:30	11:53	5,479
	1	HIRIBUS 2	12:00	12:17	5,602
	1	HIRIBUS 1	12:30	12:53	5,479
	1	HIRIBUS 1	13:30	13:53	5,479
	1	HIRIBUS 1	15:30	15:53	5,479
	1	HIRIBUS 1	16:30	16:53	5,479
	1	HIRIBUS 2	17:00	17:17	5,602
	1	HIRIBUS 1	17:30	17:53	5,479
	1	HIRIBUS 1	18:30	18:53	5,479
	1	HIRIBUS 2	19:00	19:17	5,602

ESKOLA EGUNA					
	1	HIRIBUS 2	10:00	10:17	5,602
Irailetik ekainera	1	HIRIBUS 1	10:30	10:53	5,479
Larunbata	1	HIRIBUS 2	12:00	12:17	5,602
	1	HIRIBUS 1	12:30	12:53	5,479

ESKOLA OPORRETAN					
Irailetik ekainera	1	HIRIBUS 1	8:00	8:23	5,479
Astelehenetik - ostiralera	1	HIRIBUS 1	8:30	8:53	5,479
	1	HIRIBUS 2	9:00	9:17	5,602
	1	HIRIBUS 1	9:30	9:53	5,479
	1	HIRIBUS 2	10:00	10:17	5,602
	1	HIRIBUS 1	10:30	10:53	5,479
	1	HIRIBUS 1	11:30	11:53	5,479
	1	HIRIBUS 2	12:00	12:17	5,602
	1	HIRIBUS 1	12:30	12:53	5,479
	1	HIRIBUS 1	13:30	13:53	5,479
	1	HIRIBUS 1	15:30	15:53	5,479
	1	HIRIBUS 1	16:30	16:53	5,479
	1	HIRIBUS 2	17:00	17:17	5,602
	1	HIRIBUS 1	17:30	17:53	5,479
	1	HIRIBUS 1	18:30	18:53	5,479
	1	HIRIBUS 2	19:00	19:17	5,602

ESKOLA OPORRETAN

Uztaila - Abuztua

Astelehenetik - ostiralera

1	HIRIBUS 1	8:00	8:23
1	HIRIBUS 1	8:30	8:53
1	HIRIBUS 1	9:30	9:53
1	HIRIBUS 2	10:00	10:17
1	HIRIBUS 1	10:30	10:53
1	HIRIBUS 2	12:00	12:17
1	HIRIBUS 1	12:30	12:53

5,479
5,479
5,479
5,602
5,479
5,602
5,479

SAGARDOTEGI ZERBITZUA

			Ordutegia			Luzera
BAZKARIAK	Larunbatak	SAGARDOTEGI ZERBITZUA	13:30	13:57	Zinkoenea - Sagardotegiak	8,442
		SAGARDOTEGI ZERBITZUA	14:00	14:27	Zinkoenea - Sagardotegiak	8,442
		SAGARDOTEGI ZERBITZUA	18:00	18:27	Sagardotegiak - Zinkoenea	8,442
		SAGARDOTEGI ZERBITZUA	18:30	18:57	Sagardotegiak - Zinkoenea	8,442
AFARIAK	Ostiral eta Larunbatak	SAGARDOTEGI ZERBITZUA	20:30	20:57	Zinkoenea - Sagardotegiak	8,442
		SAGARDOTEGI ZERBITZUA	21:00	21:27	Zinkoenea - Sagardotegiak	8,442
		SAGARDOTEGI ZERBITZUA	23:30	23:57	Sagardotegiak - Zinkoenea	8,442
		SAGARDOTEGI ZERBITZUA	0:00	0:27	Sagardotegiak - Zinkoenea	8,442

III. ERANSKINA: TARIFEN INTEGRAZIO SISTEMA

Honako hauek dira Gipuzkoako Garraio Agintaritzaren Batzar Nagusiak (2021/02/04) 2021eko apiriletik 2022ko maiatzerako onetsitako tarifak:

Tarifen integrazio-sistemaren barruan, Mugi txartela eta Lurraldebus txartela daude

MUGI TARIFAK 2021/04/01		
Billete papera		**URB3**
Noizbehinkakoa		1,35 €
Gauekoa		2,00 €
Mugi Txartela	Deskontuak	**URB3**
1-20 bidaia	48%	0,70 €
21-50 bidaia	58%	0,57 €
51 bidaia edo gehiago	90%	0,14 €
Izengabea	32%	0,92 €

* Tarifak BEZ barne